

03

MARTXOA 2017 MARZO



Kolorez Bizi
zumaian

Zumaiaiko Udal Aldizkaria Revista Municipal de Zumaia

MUGIKORTASUNA HOBETZEKO LANEAN

TRABAJANDO PARA MEJORAR LA MOVILIDAD



ZUMAIARRENTZAT LANEAN

- 02 Gutuna
- 03 Aurrekontuak 2017
- 04-05 Aurrera eramandakoak
- 06-07 Aparkamendu egitasmoa
- 08-09 Berriak

ZUMAIARREN TXOKOA

- 10-11 Inauteriak Zumaian
- 12-13 Kale inkesta
- 14-15 Elkarrizketa: Guraso Eskola
- 16-17 Erreportajea: Axular eta P. Etxezarreta bulebarizazioa

ALDERDIEN IRITZIA

- 18-19 EAJ-PNV
Elkarlanean sinesten dugu
EH BILDU
Itxura
- PSE-EE
Aurrekontuak eta legealdiaren ekuadorea

Oier Korta



Zumaiako alkatea

ZUMAIARRAK, GARRANTZITSUENAK


Udalera sartu eta lehen egunetik, uneoro, Zumaia eta zumaiarrak izan dira guretzat garrantzitsuenak, gure jardunaren oinarri eta ardatz nagusia, hain zuzen. Guztien ongizatea bermatu eta bizi kalitatea hobetzea da gure lehentasun eta jomuga, eta horretarako dihardugu lanean, 2017an ere herritarren eskakizunei erantzun eta Zumaia garai zein behar berrietara egokitzen jarraitzeko. Hori helburutzat hartuta landu ditugu aurten ere udal aurrekontuak. Dokumentu horretan, urtean zehar aurrera eramango ditugun proiektu, egitasmo eta lan ildoak jaso eta zehaztu ditugu, 2017an kudeaketarako, planifikaziorako eta eguneroko jardunerako erabiliko dugun lan tresna bilakatuz.

Iaz jada zuhertasun printzipioari heldu genion eta aurten ere, horri jarraipena emanez, egungo testuinguru eta beharretara egokitutako aurrekontu errealista eta arrazoizkoak landu ditugu, udal baliabideak eraginkortasunez eta zuhertiaz kudeatzeko. Proiektu eta egitasmo berriak txertatu ditugu, egungo beharrak atzean utzi gabe, noski. Horrenbestez, 2017an gure lanaren ardatz eta lehentasunak tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea, gizarte beharrei erantzuna ematea eta herriko irisgarritasuna hobetzea izango dira, horrela zumaiarren bizi kalitatea hobetu eta haien beharretara egokitutako Zumaia eraiki ahal izateko.

Ardatz horien lanketan ezinbestekoa izan da herritarren partaidetza. Gobernu talde honek elkarlanarekiko apustu sendoa egiten du eta guztien iritzia eta proposamenak aurrekontu proiektuan jasotzea benetan aberasgarria izan dela uste dugu, azken batean, etorkizuneko Zumaia eraikitze bidea guztien artean jorratzeko.

Zumaia y las y los zumaiarras han sido nuestra prioridad desde el primer día. Garantizar su bienestar y mejorar su calidad de vida es nuestro principal objetivo y de cara a cumplirlo y lograr dar respuesta a las peticiones ciudadanas nos hemos reunido con las y los zumaiarras para escuchar y recoger sus propuestas que posteriormente hemos tenido en cuenta a la hora de elaborar los presupuestos. Este gobierno apuesta firmemente por el trabajo conjunto y la colaboración y creemos que tener en cuenta e incluir las opiniones y propuestas de todas y todos ha sido realmente enriquecedor, ya que de este modo durante el 2017 seguiremos trabajando, junto a la ciudadanía zumaiarra, en la construcción de un municipio con futuro y sostenible, adaptado a los nuevos tiempos y nuevas necesidades.

2017 UDAL AURREKONTUAK



Lan ardatz nagusiak

Gizarte beharrei erantzuna ematea

Zumaiarren bizi kalitatea hobetu eta ongizatea bermatzea helburu nagusi dute aurrekontuek. Horregatik, gizarte langile berri bat kontratatuko du Udalak, herritarrei zerbitzurik egokiena eman ahal izateko. Esku-hartze psikosoziala eta hezitzailea indartzeko programa %14.5 handitu da, zerbitzu hori birdefinitu, antolatu eta herritarren beharretara egokitzeko. Gainerako gizarte programa guztiak mantendu egin dira, beharrezkoa balitz horiek handitzeko konpromisoa hartuta.

Tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea

Tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea lehentasuna izanik, legealdi hasieratik Mankomunitatearekin harremanaetan haien pertsonal baliabideak kudeatu eta gaia bailara mailan landu ahal izateko. Ekonomia indarberitzea eta lan aukera berriak sortzea lehentasun hartuta, iaz, 30.000 €-ko kontu saila sortu zuen aurrekontuetan. Aurten, aldiz, kopuru hori 75.000 €-ra igo du enpresaren garapena eta laneratzeko zerbitzua sustatzeko sortutako programetara bideratzeko.

Herri irisgarri eta jasangarria eraikitzea

Mugikortasunari dagokionez, aparkamenduaren egoera antolatu, zuzendu eta hobetzea, egoliarrak lehenetsi, ibilgailuen erabilera murriztu eta zumaiarren artean garraio ohitura osasuntsuak sustatzea 2017rako erronketako bat da. Baita hondakin bilketa sistema mankomunatua martxan jartzea ingurumenarekiko arduratsuagoa izango den herria garatzeko. Gainera, irisgarritasuna eta zumaiarren bizi kalitatea hobetzeko hainbat hirigintza proiektu eramango ditu aurrera.

Zer dira udal aurrekontuak?

Aurrekontuak Udalaren finantzak, diru sarrerak eta gastuak kudeatzeko ezinbesteko lan tresna dira, udal ekonomiaren kudeaketarako, planifikaziorako eta eguneroko jardunerako baliogarria den lan tresna, alegia. Aurrekontuek Udalaren diru sarrerak aurreikusi eta horien arabera, urteko gehieneko gastuak zehazten ditu, eta oreka horren baitan jasotzen dira ondoren urtean zehar aurrera eraman nahi diren proiektu, egitasmo eta lan ildo nagusiak. Horregatik, aurrekontuak udal baliabideak eraginkortasunez eta zuhurtziaz kudeatzeko tresna baliotsua dira Udalarentzat.

Los presupuestos son una herramienta para la gestión y planificación de la economía y las finanzas municipales y un documento de trabajo indispensable para labor diaria del Consistorio. Velan por un correcto equilibrio entre los gastos e ingresos municipales y en base a ello recogen y definen los proyectos, planes y las líneas estratégicas a desarrollar el próximo año.

Kalitatezko zerbitzuak eta gizarte ongizatea bermatzea helburu duten aurrekontuak

2016ko abenduaren 30ean onartu zituen Zumaiako Udalak 2017ko udal aurrekontuak. Horiek osatu eta lantzeko garaian, gobernua kontuan izan ditu, uneoro, hauteskunde programan eta Plan Estrategikoaren barruan zumaiarrekin elkarlanean landutako proiektuak, baita ere, noski, urtean zehar eta bereziki azken hilabeteen herritarrengandik jasotako ekarpen eta iradokizunak.

Horiek horrela, herriaren eta bereziki herritarren egungo behar eta eskaerei errepertuz, 2017rako onartutako udal aurrekontuek tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea, gizarte beharrei erantzuna ematea eta herriko irisgarritasuna hobetzea ditu helburu, horrela zumaiarren bizi kalitatea hobetu eta haien beharretara egokitutako Zumaia eraiki ahal izateko.

Con el objeto de que dar respuesta a las necesidades y peticiones de la ciudadanía, el Ayuntamiento zumaiarra aprobó, el 30 de diciembre de 2016, unos presupuestos que tienen como principales ejes de trabajo el fomento de la economía y el empleo, dar respuesta a las necesidades sociales de la ciudadanía y mejorar la accesibilidad del municipio de forma que logren mejorar la calidad de vida de las y los zumaiarras y puedan construir un municipio adaptado a las necesidades de todas y todos.

DIRU SARRERAK <i>INGRESOS</i>		GASTUAK <i>GASTOS</i>	
Zuzeneko zergak <i>Impuestos directos</i> (IBI, IAE, Ibilgailuak...)	2.986.998	Pertsonal gastuak <i>Gastos de personal</i>	3.129.795
Zeharkako zergak <i>Impuestos indirectos</i> (Eraikuntzen eta obren gaineko zerga)	150.358	Gastu arruntak <i>Gastos corrientes</i> (konponketak, mantenua, hornidurak...)	5.726.403
Tasak eta bestelako sarrerak <i>Tasas y otros</i> (zaborrak, TAO, saltoki eta barrakak, isunak...)	2.202.588	Interesak <i>Intereses</i>	22.000
Transferentzia arruntak <i>Transferencias ordinarias</i> (Estatukoak, EAE, Lurralde Historikokoak)	7.090.743	Transferentzia arruntak <i>Transferencias ordinarias</i> (elkarte eta herritarrentzako diru-laguntzak...)	2.141.524
Ondare sarrerak <i>Ingresos patrimoniales</i>	39.949	Kreditu globala <i>Crédito global</i>	2.460
Inbertsio errealean besterentzeak <i>Enajenación inversiones reales</i>	472.803	Inbertsioak <i>Inversiones</i>	1.672.869
Kapital transferentziak <i>Transferencias de capital</i>	15.600	Kapital transferentziak <i>Transferencias de capital</i> (Kirol Patronatua eta enpresa pribatuak)	93.988
Finantza aktiboak <i>Activos financieros</i>	8.000	Finantza aktiboak <i>Activos financieros</i>	8.000
Finantza pasiboak <i>Pasivos financieros</i>	0	Finantza pasiboak <i>Pasivos financieros</i>	170.000
GUZTIRA	12.967.039	GUZTIRA	12.967.039

AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK INICIATIVAS LLEVADAS A CABO

AZAROA 2016 NOVIEMBRE

Enplegu zentroaren irekiera

Udal gobernua ezinbestekotzat jotzen du herriko garapen ekonomikoa indarberritu eta enplegu sustapena lehenestea.

Horretarako, hainbat ekimen jarri ditu martxan Urola

Kostako Udal Elkartearekin elkarlanean; horien artean nagusietako bat azaroan zabalduko Enplegu zentroa. Bertan bi bulego egokitu dira, eta herritarrek lan orientaziorako laguntza eta enpresa berriak sortu edo jada martxan daudenak hobetzeko aholkularitza zerbitzua jaso ahal izango dituzte. Zentroa hileko hirugarren ostegunean zabalitzen da 09:00etatik 13:00etara. Hitzordua eskatzeko harrera@urolakosta.eus helbidera idatzi edo 943 89 08 08 telefonora deitu behar da.



Inauguración del Centro de Empleo

El equipo de gobierno puso en marcha en noviembre de 2016 el Centro de Empleo con el firme propósito de impulsar la economía y la promoción de empleo en el municipio. Dicho centro, situado en la plaza Eusebio Gurrutxaga, abre sus puertas el tercer jueves de cada mes y las y los asistentes reciben un servicio de orientación para el empleo y otro de asesoría sobre cómo mejorar un negocio o poner en marcha una nueva actividad empresarial, entre otros.

ABENDUA 2016 DICIEMBRE

Hondakin bilketa sistema mankomunatuaren aurkezpena

Udalera sartu orduko, gobernu taldea gogor aritu da lanean bailara mailan hondakinak biltzeko sistema berri eta bateratua bultzatu eta aurreko legealdian sinatutakoari erantzuna emateko. Lanketa sakon baten ostean, abenduan aurkeztu zuen zabor bilketa sistema berri mankomunatua. Horren arabera, 2018ko urtarilaren 1etik aurrera, Udal Elkarte arduratuko da hondakinen bilketa eta kudeaketaz, errefusa barne. Sistema berriarekin, errefusa eta organikoaren edukiontzia txipdun txartel bidez irekiko dira, eta gainerako edukiontziek gaur egungo sistemarekin jarraituko dute.

Presentación del nuevo sistema de recogida mancomunado

Tras trabajar durante año y medio en el fomento, a nivel comarcal, de un nuevo sistema común de recogida selectiva de residuos, el equipo de gobierno presentó en diciembre el nuevo sistema mancomunado.



Gracias a él, a partir del 1 de enero de 2018, la Mancomunidad será la encargada de recoger y gestionar los servicios de recogida selectiva de residuos, incluida la fracción resto. Los contenedores del orgánico y el rechazo se abrirán mediante una tarjeta con chip y el resto de contenedores seguirán funcionando como hasta ahora.

2017ko udal aurrekontuen onarpena

Zumaiarrak ardatz hartuta, tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea, gizarte beharrei erantzuna ematea eta herriko irisgarritasuna hobetzea lehenetsi ditu Udalak 2017ko aurrekontuetan. Proiektu garrantzitsuenen artean, herriko aparkamendua antolatzeke ordenantza martxan jartzea, Jadarreko horma berreraikitzea edo Axular-P. Etxezarreta bulebarizatzea dira aipagarrienak.

Aprobación de los presupuestos de 2017

Siendo las y los zumaiarras el principal eje de trabajo del Ayuntamiento, fomentar la economía local y el empleo, responder a las necesidades sociales y mejorar la accesibilidad en el municipio son la prioridad del gobierno de cara al año que viene. Entre los proyectos más importantes recogidos en los presupuestos destacan la regularización del aparcamiento, la bulevarización de Axular-P. Etxezarreta o la reforma del muro de Jadarre.

San Jose auzoko igogailua eraikitzeke ideia lehiaketa

Zumaiako San Jose auzoak badu irisgarritasuna hobetzeko 11 puntuz osatutako eta onartutako Plan Berezia; horien artean nagusia Eusebio Gurrutxaga eta San Juan egoitza artean igogailua jartzea da. Proiektuak, ordea, urteak egin ditu geldirik; horrenbestez,



udal gobernuak, hauteskunde programari helduz eta emandako hitza betez, ekimena berriro ere martxan jarri eta aipatutako eremuan igogailua jarri ahal izateko ezinbestekoa den lursaila erosi zuen abenduan, horretarako 271.797,70 € bideratuta. Proiektuari esker, auzoko irisgarritasuna eta bertakoen mugikortasuna erraztu eta hobetzea espero du Udalak.

Concurso de ideas para la construcción del ascensor del barrio San José

En diciembre, el equipo de gobierno, cumpliendo con lo prometido en su programa electoral, compró el terreno necesario para volver a poner en marcha el proyecto de instalación del ascensor del barrio San José que llevaba años paralizado. Para ello ha invertido 271.797,70€ y espera que dicha actuación mejore la accesibilidad al barrio y facilite la movilidad de sus vecinas y vecinos.

URTARRILA 2017 ENERO

Herriko aparkamenduaren egoera antolatzeko herritarrekin bilerak

2016ko irailean hasi eta urtarrila bitartean 8 bilera ireki egin ditu Udalak herritarrekin. Eremuz eremu Zumaiako auzo



guztietako bizilagunekin bildu ahal izan du landutako egitasmoaren berri eman eta haien behar, iritzi eta proposamenak ezagutu eta jasotzeko. Egitasmoaren helburua da herriko aparkamenduaren antolamendua zuzendu eta hobetzea, herritarren mugikortasun eta irisgarritasun beharrei erantzuna emanez.

Reuniones ciudadanas para avanzar en la regulación del aparcamiento

Desde septiembre de 2016 hasta este mes de enero ha celebrado un total de 8 reuniones en las cuales se ha reunido, zona por zona, con toda la ciudadanía para presentar su proyecto y conocer todas las propuestas de las y los zumaiarres. El objetivo de la iniciativa presentada por el gobierno es regular el aparcamiento en el municipio, dando respuesta a las necesidades de movilidad y accesibilidad de todas y todos.

Gizarte helburua duten hiru elkarteren artean banatutako dohaintza



San Jose komentuko aterpetxearen kudeaketatik jasotako 5.500 € gizarte helburua duten hiru elkarteren artean banatu du Udalak: Zumaiako Errefuxiatuen

taldea, Lourdesko Amaren Abegi Elkartea eta Atzegi, hain zuzen. Honenbestez, elkarte bakoitzak 1.833 €-ko diru laguntza jaso du. Ekimen eta dohaintza horren bitartez, Udalak bat egin nahi izan du elkarte horien helburuekin eta bere laguntza eskaini du haien asmoak lortu eta behar gehien duten pertsonen laguntzen jarraitzeko.

Donativo repartido entre tres asociaciones con fines sociales

El Ayuntamiento ha repartido los 5.500€ recibidos por la gestión del Albergue de Peregrinos entre tres asociaciones con fines sociales: Zumaiako Errefuxiatuen Harrera Taldea, Hospitalarios de Lourdes y Atzegi. De este modo, ha hecho entrega, a cada una de ellas, de la suma de 1.833€.

OTSAILA 2017 FEBRERO

Gerra Zibilean kanporatutako haur eta emakume zumaiarrei omenaldia

Aurten 80 urte bete dira tropa frankistak Zumaiar sartu eta herria zein herritarrek gogor eraso eta zigortu zituztenetik. Gerra Zibilean 252 haur eta emakume



kanporatu zituzten Zumaiatik eta gertakari horren harira, Udalak omenaldi beroa eskaini zien guztiei. Zuloaga parkean Oroimenaren gunea deituriko eremua zabaldu dute eta bertan kokatu da kanporatuen omenez eginiko burdinazko murala.

Homenaje a las mujeres y niñas/os zumaiarres exiliados en la Gerra Civil

Este pasado mes de febrero el Ayuntamiento de Zumaiar ha rendido un sentido homenaje a todas las mujeres y niñas y niños que hace 80 años fueron expulsados de sus hogares con la llegada de las tropas franquistas a Zumaiar.

HERRIKO APARKAMENDUA ANTOLATZEKO EGITASMOA

LANKETA PROZESUA DESARROLLO DE LA INICIATIVA

2016	2017
Azterketa <i>Estudio y análisis</i> - Plan Estrategikoa <i>Plan Estratégico</i> - Mugikortasun Plana <i>Plan de Movilidad</i> - Ondoko udalerrien ereduaren kontsulta <i>Consultas en Ayuntamientos vecinos</i>	Zirriborroaren aurkezpena herritar, merkataria eta ostalariei <i>Presentación del borrador a la ciudadanía, comerciantes y hosteleros</i> *Urtarrilak 17-18-19 enero
Parte hartze prozesua <i>Proceso participativo</i> Herritarrekin bilerak <i>Reuniones ciudadanas</i> *Irailak 5/7 septiembre, azaroak 29 noviembre	Lan mahaia <i>Mesa de trabajo</i> Otsaila-martxoa bitartean behin betiko dokumentuaren osaketa udal talde guztiekin <i>Redacción del documento definitivo junto a todos los grupos municipales entre febrero-marzo</i>
Lehen zirriborroaren aurkezpena Batzordean <i>Presentación en Comisión del primer borrador</i> *Abenduak 19 diciembre	Behin betiko onespena <i>Aprobación definitiva</i> Bidezkoa bada, martxoan <i>En marzo, si procede</i>

UDALAREN PROPOSAMENAREN EZAUGARRIAK

Lehenik eta behin, noiz jarriko da indarrean sistema berria? Eta noiz arte iraungo du?

Aipatutako sistema ekainaren 15etik irailaren 15a arte egongo da indarrean (biak barne). Behin hondartza denboraldia amaituta, aparkamenduaren antolamendua ohiko egoerara bueltatuko da Ardantzabide auzoan izan ezik. Bertan sistema hori urte osoan zehar mantenduko da.

Non aplikatuko da antolamendu berria?

Lehenik eta behin erdigunean jarriko du martxan Udalak, hau da, Ardantzabide, alde zahara-San Jose, Larretxo eta Arrangoleta eremuan. Horretarako, martxoaren amaierarako osatuko ditu esleipena egin ahal izateko baldintza pleguak. Behin sistema egonkortzean herri osora zabalduko du.

Zergatik egin da bi faseko bereizpen hori?

Uda sasoiko trafiko eta ibilgailu gorakadarekin Zumaia erdigunean sortzen dira aparkatzeko arazo handienak. Gainera, alde zaharrak duen egituraketa aintzat hartuz eta eremu horretan egun dauden aparkaleku zein garaje pribatu kopurua murrizta dela jakinik, arazoa areagotu egiten da. Azken

Mugikortasun Planak egitasmoa bi fasetan aurrera eramatea aurreikusten du, beraz, bertan jasotakoari erreparatuz eta erdiguneko arazoa kontuan izanik, sistema berria lehendabizi erdigunean martxan jartzea erabaki du Udalak.

Zumaiarra izanik, non aparkatu ahal izango dut egoiliar txartelarekin?

Zumaia erdigunea 4 eremutan banatuta egongo da:

1. zona: Ardantzabide
2. zona: alde zaharra-San Jose
3. zona: Larretxo
4. zona: Arrangoleta

Uda sasoian, 1, 2 eta 4 eremuak zona bakar bat bezala erabili ahal izango dira, hau da, eremu horietan bizi diren zumaiarrek aipatutako 1, 2 eta 4. gunen horietako edozeinetan aparkatu ahal izango dute egoiliarren txartelarekin.

Halaber, 3. eremuan Larretxoko biztanleek soilik aparkatu ahal izango dute, baina, aldi berean, haiek ezingo dute gainerako hiru eremuetan aparkatu.

Behin uda denboraldia amaituta, Ardantzabiden soilik jarraituko du indarrean sistemak. Horren arabera, bertako egoiliarren eremuetan auzotarrek eta alde zaharra-San Jose eremuko bizilagunek soilik aparkatu ahal izango dute.

Zumaiarra naiz baina ez dut egoiliar txartelik. Non aparkatu ahal izango dut?

Egoiliarren eremuez gain, TAO gunea eta errotazio altuko aparkamenduak egongo dira. Kasu honetan, egoiliar



Halaber, lanketa prozesu guztia ikuspegi zabalago batetik garatu du Udalak eta, Mugikortasuna Planari eta Plan Estrategikoan jasotakoari erreparatuz, egungo aparkamenduaren antolamendua hobetzeaz gain, zumaiarren artean mugikortasun ohitura osasuntsuak sustatu eta oinezkoen lehentasuna eman nahi die, herriko kaleetan zehar haien segurtasuna hobetu eta bermatzeko eta, bide batez, Zumaia herri jasangarri bilakatzeko apustuan, hirigunean autoz egiten diren desplazamenduak ere gutxitzeko.

“Landutako egitasmoa bizirik dagoen dokumentu irekia da, herritarren momentuko beharretara egokitzeko moldatu ahal izango dena, alegia”

Horrela, behin sistema berria ezartzean, horren onurak eta gabeziak, abantailak eta desabantailak aztertu eta hobekuntzak egin ahal izango dira, zumaiarren egunerokotasuneko beharrei erantzuna eman diezaien.

La iniciativa presentada por el Ayuntamiento tiene como principal objetivo mejorar la movilidad y accesibilidad de la ciudadanía y dar salida al actual problema que sufre, principalmente el centro urbano de Zumaia, priorizando siempre a las y los residentes de cada zona.

Aun así, el Consistorio incide en que dicha ordenanza es un documento abierto que podrá ser modificado las veces que sean necesarias.



txartelik ez duten zumaiarrek bertan aparkatu ahal izango dute, baina ez egoiliarrentzat gordetako eremuetan.

TAO guneari dagokionez, Julio Beobide ibiltokian jarriko da (Parolbidean) eta errotazio altuko gunea, aldiz, Txomin Agirre kaian.

Zumaiarra naiz, TAO eta errotazio altuko gunetan ordaindu egin beharko dut?

Ez. TAO guneari kasuan, egoiliar txartela dutenek, (zona 1,2,4) doan aparkatu ahal izango dute 24 orduz. Egoiliar txartela ez dutenek eta Larretxoko bizilagunek (zona 3), aldiz, 5-6 orduz aparkatu ahal izango dute bertan doanik.

Errotazio altuko gunean, zumaiar orok, (txartela dutenek eta ez dutenek) ordu eta erdiko gehieneko muga izango dute doan aparkatzeko.

Zein ordutegi izango dute, TAO eta errotazio altuko gunek? Eta egoiliarren eremuek?

TAO gunea: astelehenetik igandera, 09:00- 20:00.

Errotazio altuko gunek: astelehenetik ostiralera,

09:00-20:00. Larunbatetan: 09:00-13:00. Larunbat arratsalde, igande eta jaiegunetan TAO gune gisa: 09:00- 20:00.

Egoiliarren eremua: indarrean egongo da asteko 7 egunak 24 orduz.

Zer egin behar dut egoiliarren txartela eskuratzeko?

Txartela udaletxean eskatu ahal izango da. Horretarako, ezinbestekoa izango da Zumaia erroldatuta egotea eta ibilgailua norberaren etxebizitzan erregistratuta izatea. Halaber, trafiko isun guztiak eta egoiliarren txartela eskuratzeko tarifa ere ordainduta eduki beharko dira. Txartelaren kostua 15 €-koa izango da.

Zein dokumentazio aurkeztu behar dut txartela eskatzeko?

Udaleko eskaera orriaz gain (Udaletxean bertan eskatu edo eskuratu ahal izango da), NANaren eta ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia eta txartela eskuratzeko tarifa ordaindu izanaren ziurtagiria.



Zenbat txartel eskuratu ahal izango ditut? Eta zenbateko iraupena izango dute?

Etxe bakoitzeko, gehienez 2 txartel emango dira. Egoiliarren txartelak urtebeteko iraupena izango du. Behin epe hori amaituta, automatikoki berrituko da datorren urterako.

BERRIAK

AURRERA DOA SAN JOSE AUZOKO IGOGAILU PROIEKTUA AVANCES EN EL PROYECTO DEL ASCENSOR DE SAN JOSÉ



Zumaiako San Jose auzoa bereziki aldapatsua da. Horrek bertako bizilagunen mugikortasuna zaildu eta auzoko irisgarritasuna oztopatzen ditu. Hori konpontzeko, auzoak badu bertako irisgarritasuna hobetzeko sortu eta onartutako Plan Berezia. Planak 11 puntu edo ekintza aurreikusten ditu eta horien artean nagusi edo garrantzitsuena Eusebio Gurrutxaga eta San Juan egoitza artean igogailua jartzea da.

Proiektu hori, ordea, geldirik egon da zenbait urtez eta gobernuak abenduan igogailua jarri ahal izateko ezinbestekoa zen lursaila erosi ostean, abian jarri zuen Udalak proiektuaren idazketa prozesua, arkitektoei zuzendutako ideia lehiaketa baten bitartez.

Joan den otsailaren 15ean amaitu zen proposamenak aurkezteko epea eta guztira 13 proiektu jaso ditu Udalak. Orain, epaimahaiak guztiak aztertu eta irizpide ezberdinen arabera 5 proiektu hoberenak aukeratu ditu. Epaimahaikideak hauek dira: Zumaiako alkatea, arkitektoa, udal aparejadorea, kontu-hartzailea eta Udalak aukeratutako bi arkitekto. Behin proiektu horiek zehaztean herritarren txanda izango da, boto bidez gustukoena eta egokiena aukeratzeko. Horretarako, erakusketa bat antolatuko du Udalak datozen asteotan eta zumaiarrek 10 eguneko epea izango dute bozkatzeko.

Behin parte-hartze prozesua amaituta, epaimahaiaren puntuazioari herritarrengandik jasotako botoak gehituko zaizkio eta puntu gehien lortzen dituen diseinua izango da proposamen irabazlea, eta beraz, hari esleituko zaio proiektuaren idazketa lana eta obra zuzendaritza.

El Ayuntamiento ha recibido un total de 13 proyectos en el concurso de ideas llevado a cabo para la instalación del ascensor del barrio

San José. Una vez el jurado escoja los 5 mejores proyectos la ciudadanía podrá votar por aquel que más les guste o les parezca más adecuada. Una vez hecho el recuento, la propuesta que más puntos obtenga de la suma de votos del jurado y la ciudadanía será la ganadora y por tanto se le adjudicará al autor/a la redacción del proyecto así como la dirección de obra.

EKINTZA EGITARAU ZABALA HILABETE MORERAKO NUMEROSAS ACTIVIDADES PARA EL MES MORADO

Hilabete moreari jarraipena emateko, martxoaren 9an, Hika Teatroa taldearen "Koaderno zuri" antzerkia eskainiko da 20:00etan Aita Marin. Antzezlanak bizitza zeharo ezberdina izan duten bi ahizpa elkartzen ditu urte askoren ondoren, eta amaren heriotzaren inguruan bien ikuspuntua azalduko digu,

norberaren bizimodua oinarri hartuta. 14an, azken 6 hilabeteotan persona helduen eta mendekotasun egoeran daudenen zaintzaren inguruan egindako diagnosia aurkeztuko da Oxford aretoan, arratsaldeko 18:30ean eta astebete geroago, 21ean, "Mujeres inmigrantes y resistencias" bideoaren aurkezpena ikusteko aukera izango dute zumaiarrek, Malen Etxean.

Egitarauari amaiera emateko, martxoaren 23 eta 30ean, Zinegoak Bilboko Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen jaialdiko film laburren lehiaketako irabazleak proiektatuko dira Aita Marin, gaueko 22:00etan.

Un año más, Zumaia se vuelca con el "hilabete morea" y entre las actividades organizadas destacan, entre otros, la cadena humana organizada para el Día Internacional de la Mujer, la presentación del diagnóstico realizado estos últimos 6 meses en torno al servicio de cuidados de personas mayores y en situación de dependencia o el ciclo Zinegoak, en el cual se proyectarán los cortometrajes ganadores del Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas de Bilbao.



HERRIKO PARKEETAN HOBEKUNTZAK MEJORAS EN LOS PARQUES INFANTILES



Zumaiako haurrei aisialdi eta jolas gune eta aukera berriak eskaintzeko helburuz, Udalak hainbat egokitzapen eta eraberritze lan egin ditu iaztik hona herriko hainbat parke eta jolas guneetan, besteak beste Narrondon, Maria eta Jose ikastetxean, Bonbillon, Amaiako plazan, Arrangoletan edo Oikian. Santiago hondartzan, Oikian, Kantauri plazan, Marianton parkean, Puntanoetan, Aita Mari ikastetxean, Aita Mari 42an eta osasun zentrokoan. Izan ere, 2016ko irailean Haur Parkeak, SL. enpresarekin kontratua sinatu zuen herriko jolas guneak hobetu eta mantentzeko.

Egindako lanen artean Horiek horrela, azken hilabeteotan aipatutako parkeetako azpiegiturak konpondu eta hobetu dira eta apurtutako materialaren ordezkari berri jarri da. Guztira 5.252.68 € bideratu ditu Udalak egokitzapen eta hobekuntza lan horietara, eta 2017ko aurrekontuetan parke guztien mantentzea egiten jarraitzeko kontu saila ere jaso du.

Con el objeto de ofrecer a las y los niños zumaiarrras nuevas opciones y espacios de juego y garantizar su seguridad y bienestar en todos ellos, el Ayuntamiento ha realizado diversos trabajos de adecuación y reforma en todos los parques del municipio, en concreto, en las áreas de juego de Narrondo, colegio Maria eta Jose, Bonbillo, Plaza Amaia, Arrangoleta, Santiago, Oikia, Kantauri, Marianton, Puntanoeta, colegio Aita Mari, Aita Mari 42 y el ambulatorio. Y es que para ello, en septiembre de 2016 firmó un contrato con la empresa Haur Parkeak SL. de forma que esta empresa se ha encargado de llevar a cabo dichos trabajos y realizar las labores de mantenimiento.

En total, el Consistorio ha destinado 5.252.68 € al desarrollo de dichos trabajos y ha incluido, en los presupuestos de 2017, una nueva partida para seguir con el mantenimiento de los parques.

LAN ELKARRIZKETAK ZUMAIKO ENPLEGU BULEGOAN

ENTREVISTAS DE TRABAJO EN LA OFICINA DE EMPLEO

Jakina da datozen hilabeteotan supermerkatu berri bat irekiko dela Ardantzabide auzoan. Irekiera horrek lanpostu berriak sortuko ditu eta herriko enplegua sustatzea izanik Udalaren helburu eta lan ardatz nagusietako bat, supermerkatuko arduradunekin hitz egin ostean, gaia Enplegu Bulegotik bideratzea lortu du gobernuak, lan aukera berri eta ezin hobe hori zumaiarregana hurbilduz.

Horretarako, datorren hilaren 16an, Enplegu Bulegoaren irekiera eguna dela aprobetxatuz (hileko hirugarren osteguna, alegia), interesa duten herritarrek haien curriculuma bertan egongo diren Udal Elkarteko teknikariei entregatzeko aukera izango dute. Ondoren, haiek supermerkatuko arduradunei bideratuko dizkiete jasotako lan eskaera guztiak, eta hortik aurrera, azken horiek supermerkatuko arduradunak izango dira hautatuekin harremanetan jarriko direnak Enplegu Bulegoan egingo diren lan elkarrizketen eguna eta ordua finkatzeko.



Estos próximos meses se abrirá un nuevo supermercado en el barrio Ardantzabide, lo cual generará nuevos puestos de trabajo en el municipio. Siendo la promoción del empleo uno de los principales objetivos y ejes de trabajo del Ayuntamiento, tras varias reuniones con las y los responsables del supermercado en cuestión, el gobierno ha logrado gestionar el tema de las entrevistas de trabajo desde el Centro de Empleo del municipio. De este modo, el próximo 16 de marzo, coincidiendo con la apertura mensual del centro (tercer jueves de cada mes), las personas interesadas podrán presentar allí sus currículums a las y los técnicos de la Mancomunidad Urola Kosta. A partir de entonces, será la propia empresa quien se ponga en contacto con las personas seleccionadas para concretar la hora y el día de la entrevista que tendrá lugar en el Centro de Empleo de Zumaiar.

INAUTERIAK ZUMAIAN





KALE INKESTA - Aparkamenduaren inguruan

Gaur egun aparkamenduaren gaia lantzen ari da Zumaiako Udala. Gobernuak herritarrekin egindako bileretan bereziki uda sasoiari begira erdigunean jarri nahi duen sistemaren nondik norakoak partekatu ditu zumaiarrekin. Kalera atera gara horren inguruan herritarrek duten iritzia ezagutzera.

Hoy en día, el tema de la regulación del aparcamiento está a la orden del día en Zumaia. El Consistorio ha presentado en diversas reuniones ciudadanas los detalles de su proyecto. Ahora hemos salido a la calle para saber qué opinan las y los zumaiarres al respecto.

AINARA ARANBERRI - Zumaiarra

Zer deritzozu herriko aparkamendua antolatu eta hobetzeko Udalak hartutako inizatibaren inguruan?

Egia esan ez nago oso informatuta, baina dakidanez momentuz Ardantzabiden besterik ez dute jarri behar, ezta? Egia esan ez dakit asko, azken finean marraz margoituta daudelako dakit bertan jarri behar dutela, baina Udalean bertan ere ez didate gaia asko argitu. Orokorrean ez dakit zein den asmoa.

Gainera, beste zalantza bat sortzen zait. Sistema hori jartzen badute beste aldean, gu joan gaitezke bertara aparkatzea? Egia esan, informazio faltarekin gaude. Ez dakit sistema otsailetik otsailerakoa den edo otsailetik urte bukaerara doan edo nola. Ez dugu erantzunik jaso. Guk, momentuz, ez dugu txartelik eskatuko. Uda heltzen denean ikusiko dugu nola dagoen egoera eta orduan, behar bada eskatuko dugu. Gure kalea sartzen da proiektu horren baitan, beraz...

Zein abantaila ikusten dizkiozu planteatutako sistemari? Eta desabantailak?

Hori datorren urtean ikusiko genuke, behin proba egitean. Baina momentuz, ez dakit zein puntutaraino izan ditzakeen abantailak, ez dut oso argi ikusten.

IASMINA LARRAÑAGA - Zumaiarra

Zer deritzozu herriko aparkamendua antolatu eta hobetzeko Udalak hartutako inizatibaren inguruan?

Egia esan, ez dakit oso ondo nola doan gaia. Ni Oikian bizi naiz. Zergak hemen ordaintzen ditut, dena hemen ordaintzen dut. Asteburuetan lanera hona etortzen naiz. Orain arazoak izaten ditut aparkatzeko, poligonoan egiten dut lan, Eroski ondoan, eta larunbatetan izugarritzko arazoa izaten dut aparkatzeko. 12:00etan sartzeko 11:30ean atera behar dut etxetik, bestela ez dut tokirik topatzen. Beraz nik orain pentsatzen dut: eta nik gero ordaindu egin beharko dut? Ez dakit, ez dut oso garbi ikusten, egia esan.

Zein abantaila ikusten dizkiozu planteatutako sistemari? Eta desabantailak?

Momentuz ez diot abantailarik ikusten. Agian izango du eta agian ni ez naiz ondoegi informatu; beraz, izan ditzake, baina esaten dute Eroski inguruan orduarekin jarriko dutela, errotaziokoa. Eta gu, egia esan, Oikiatik hona etortzen garenean denbora pasa oso gutxitan etortzen gara, normalean erosketa batzuk egitera eta abar; orduan, Eroski aurreko hori errotaziokoa izatea ondo. Baina gehiago enteratu beharko nuke. Egia da herrian aparkaleku gehiago behar dugula, izan ere, boom asko izan dute pelikulek, flyschak... Jende asko dabil eta ez dago aparkatzeko lekurik. Hori da ikusten dudana.

JUAN LÓPEZ - Zumaiarra

¿Qué te parece la iniciativa que ha tomado el Ayuntamiento para la regulación del aparcamiento?

No me parece mal pero tampoco me parece bien. Por lo que tengo entendido hay una parte, aquella parte de Eroski, que va a ser únicamente para los que viven ahí, y yo viviendo en Zumaia me pregunto, ¿por qué no puedo ir a aparcar ahí?

¿Qué ventajas o desventajas crees que puede tener el sistema?

Yo le veo más desventajas que ventajas. Está claro que de cara al verano va a favorecer más a la gente del pueblo, pero en general, creo que el hecho de haber zonas exclusivas de residentes en ciertos barrios me va a limitar mucho el aparcamiento.



MARGARI MURILLO - Dendaria

Zer deritzozu herriko aparkamendua antolatu eta hobetzeko Udalak hartutako inizatibaren inguruan?

Guk ekainetik irailera garaje bat alokatzen dugu eta bertan sartzen dugu furgoneta. Horrela bueltaka eta bueltaka aparkatu ezinik denbora galtzea saihesten dugu. Baina argi dago inizatiba hori hartu beharra zegoela, bestela, herrian aparkatzea kaosa bilakatzen ari da eta. Orain, ondo edo gaizki iruditzen zaidan? Ikusi egin beharko da, ea aurtengo urtea nola joaten den eta ea nola erantzuten dugun bai guk eta bai kanpoko jendeak, noski. Alde onak eta txarrak. Zer ekarriko du?

Niri pertsonalki ez dit ezer positiborik ekarri telesail hori Zumaian grabatzeak, baina, negatibo bezala noski, hondartzara ezin joan izatea esango nuke. Horrez gain, honek turismo igoera ekarriko du eta OTA jartzearen erabaki hori honek bultzatu duela pentsatzen dut.

Zein abantaila ikusten dizkiozu planteatutako sistemari? Eta desabantailak?

Abantaila, alde batetik, herriko jendearentzat bereziki. Dakidanez, jada atera dute egoiliar txartel hori eta horrekin, suposatzen da lehentasuna izango dugula aparkatzeko. Denok ez dugu izango aparkaleku plaza bat baina behintzat izango dugu aukera aparkatzeko. Alde txarra, aldiz, iruditzen zait kanpoko jendea berdin sartuko dela herrira, erdigunera, eta hor ibiliko dira bueltaka eta bueltaka. Nik bestela, Egurko aldeko zona horretan jarriko nituzke aparkalekuak, kanpoko jendea bertara joan dadin aparkatzera. Ondoren, autobus urbano horietako bat jarriko nuke etengabe herri barrura etortzeko. Horrela, kanpoko jendeak hondartzaraino etorri nahi badu edo herrira etorri zerbait hartzea, etengabe autobus hori izango luke.

PILAR NAVARRO - Comerciante

¿Qué te parece la iniciativa que ha tomado el Ayuntamiento para la regulación del aparcamiento?

Zumaia se ha convertido para mí en un pueblo turístico al que la mayoría viene en coche. Entonces creo que sí que habría que hacer algo, porque también es verdad que hoy en día ya se paga en todos los sitios, pero bueno, habría que ver cómo lo hacen, porque eso también dependerá de la cuota que pongan.

De todas formas, no sé muy bien si la iniciativa es la solución o no. Quiero decir, ¿ya surtiría efecto que la gente no viniera en coche? Es de lo que se trata, de que haya más sitio para aparcar. Ahora mismo vas buscando y buscando y ni los del pueblo encuentran sitio. Con lo cual, ¿Ya surtiría efecto? Pues verdaderamente, no lo sé.

¿Qué ventajas o desventajas crees que puede tener el sistema?

Yo creo que habría que probar. Todo hay que probar. Primero probar y luego mirar a ver qué pasa. Luego si oyes a la gente que dice "no fui por el tema del aparcamiento" o cosas similares pues entonces se quita o se estudia otra manera de hacerlo o no sé, pero de buenas a primeras no habría que descartar nada.

GURASO ESKOLA



Ser madre o padre es algo importante, bonito y a la par un camino lleno de dificultades y obstáculos. Atendiendo a la edad de las y los niños, cada madre y padre viven situaciones diferentes y para ayudar a hacer frente a cada una de ellas, el Ayuntamiento de Zumaia organiza, cada año, la Escuela de Padres y Madres.

Bajo la dirección de un especialista, las y los asistentes comparten experiencias y trabajan diferentes temas a la vez que obtienen

motivación personal para su labor diaria como madre o padre y adquieren recursos y estrategias para superar y hacer frente a los diferentes problemas que surgen en el proceso educativo de sus hijas e hijos.

JOXE AMIAMA

Pedagogia eta Psikopedagogikiako irakaslea EHUn. Aurten Zumaian izan da Guraso Eskolako saioak ematen eta berarekin hitz egiteko aukera izan dugu, Guraso Eskolaren funtzionamendu eta helburua hobeto ezagutzeko.

Zer da Guraso Eskola?

Guraso Eskola umeak hezitzeko baliagarriak izango diren estrategia berriak ezagutu, barneratu eta ikasteko aukera ematen duen espazioa da. Orain arte, historikoki zintzotasunean oinarritutako eredu bat izan dugu gure seme-alabei erakusteko, baina denborak aurrera egin ahala, ordea, planteamendua aldatu egin da. Orain bigarren eredu bat dugu: ardura. Beraz, jaso eta ezagutu ditugun estrategiak ez doaz bat arduraren eskema berriarekin eta Guraso Eskolak estrategia horiek aldatzeko eta berriak barneratu eta ikasteko aukera bat ematen digu.

Zein gai jorratzen dira Guraso Eskolan? Adinaren arabera gai ezberdinak lantzen al dira?

Umeen adinaren arabera, errealitateak aldatu egiten dira, beraz, gai ezberdinak lantzen dira. 6-12 urte bitarteko gurasoekin bereziki autoestimua, jelsiari edota adimen emozionalaren inguruan mintzatzen gara. 12-16 urteko gurasoekin, aldiz, garapen psikologikoa da gehienbat lantzen duguna. Dena den, orokorrean familiarekin lotura zuzena duten gaiak dira guztiak, bereziki komunikazioarekin zerikusia dutenak. Gaur egun asko komunikatu nahi dugu gure seme-alabekin eta Guraso Eskolan komunikazio hori errazten duten estrategiak lantzen ditugu. Eta talde bakoitzean errealitate ezberdinak izan arren, haien esperientzietan zentratzen gara eta adibideak bakoitzaren esperientziarekin lotzen ditugu.

Zer erakusten zaie gurasoei?

Nik sarritan esaten dudan bezala gurasoak garenok "nos sobrevivimos". Garai askotan kulpasentimenduak



sortzen dira eta, zentzu horretan, Guraso Eskolak sentimendu horiek ulertzeko aukera ematen duela uste dut. Gurasoak izatez inperfektuak gara eta hori neurri batean onartu egin beharreko sentimendua da. Horretarako da lagungarria, hain zuzen, Guraso Eskola. Baita distantzia hartu eta taldean, gertuko giro baten baitan, marko teoriko bat landu eta ezagutza berriak jasotzeko.

Zein puntutaraino da garrantzitsua familia eta eskolaren arteko lotura? Zergatik?

Gaur egun, bi sistema indartsu gelditzen zaizkigu ume eta gazteak asetzeko: eskola eta familia. Eta horregatik diot beti zaindu egin behar direla biak, bien artean lotura onak egiten baditugu, gure umeentzat askoz hobea, aberasgarria eta onuragarria izango delako. Dena den, kontuan izan behar da eskola eta familia sistema ezberdinak direla bata bestearekiko eta hori aintzat hartu behar dugu eskola eta familiaren artean harreman polit bat eraiki ahal izateko.

Amaitzeko, nola baloratuko zenuke Guraso Eskolak Zumaian izan duen harrera?

Zumaian bi talde osatu dira, LHko haurren gurasoekin bata eta DBHkoenekin bestea. Lehen taldean 20 bat guraso elkartu gara eta bigarrenetan, aldiz, 12-15 lagun inguru. Beraz, orokorrean oso harrera ona izan duela esango nuke. Urteak egin ditut nik Zumaiaiko Guraso Eskolara etortzen eta saio guztietan gurasoen interesa eta atentzia ezin hobea izan da.


PILI ETXABE. 50 urte Zumaiarra.
12-16 urte bitarte seme-alabak

“Guraso Eskola
hausnarketarako
denbora eskaintzen
duen opari eta aukera
ezin hobea da”



KOLDO DE ANTA. 49 urte.
6-12 urte bitarteko seme-alabak

“Gurasoek formatu egin behar
dugu gure seme-alabei erakutsi eta
haiei ahalik eta bizitza erosoena
emateko eta horretarako oso
lagungarria da Guraso Eskola”



Zenbat urte daramatzazu guraso eskolara joaten?

Ni jada bitan joan naiz. Seme zaharrena LHtik DBHra aldatu zenean izan zen nire lehen aldia eta oraingoan berriro joatera animatu nauena saioak ematera etorri diren adituak izan dira, Joxe eta Izar, hain zuzen. Ezagunak ditut eta asko gustatzen zait beraien lan egiteko modua.

Lagungarria izan al zaizu?

Guztiz. Eta bereziki asko gustatu zait Guraso Eskolara etorri diren profesionalak eskola eta familiaren artean egin duten bitartekari lana. Azken finean, gurasoak garenok bi alderdi horiek bakarrik ditugu, eskola eta familia. Batzuetan, ordea, badirudi ez ditugula helburu berdinak, eta oso tristeak izateaz gain, niri pertsonalki, ezinegonak sortzen dit horrek. Kasu horretan, Guraso Eskolara etortzen diren adituek, Joxe eta Izarrek, bitartekari lana egiten dute. Nolabait, bien arteko harremanak eraikitzeko bide egokiak erakusten dizkigute. Zure nerabegarora eramaten zaituzte eta horren inguruan gogoeta eginarazten dizute. Hausnarketa denbora horren bitartez eta emandako adibideei esker, zure umeen aldaketa guztiak ulertzen erakusten dizute. Eta hori oso lagungarria izan da, baita beste gurasoekin egotea eta esperientziak partekatzea ere.

Inoiz joan ez diren gurasoak animatuko al zenituzke Guraso Eskolan parte hartzera?

Zalantzarik gabe. Bizitza honetan, guraso izatea paper bat betetzea da. Eta umeak handitzen diren heinean, guk ere egokitzen joan behar dugu. Beraz, puntu horretan esperientziak partekatu eta hausnarketa egiteko denbora hartzea oso lagungarria da. Eta hori da niretzat azken finean Guraso Eskola, gogoeta egiteko denbora hartzea, gure seme-alaben aldaketak ulertzeko eta horien aurrean gure papera zein den eta nola bete behar den ikasteko.

Horregatik, pena ematen diu urteak aurrera egin ahala jende berri gutxi ikusi dudalako. Beraz, benetan, inoiz joan ez diren gurasoak proba egitera animatuko nituzke, guztiz lagungarria delako.

Zenbat urte daramatzazu Guraso Eskolara joaten?

Aurten lehen aldia izan da, azken urteotan lana eta ordutegi kontuak direla eta ezin izan baitut joan. Oraingoan ordua ondo etortzen zitzaidan; beraz, aurrera egin dut.

Lagungarria egin al zaizu?

Bai, noski. Guraso Eskolak beste ikuspuntu bat ematen du eta hori, niri, bereziki lagungarria izan zait. Pauta moduko batzuk ikasten dituzu, jokaera aukera berriak, guk, sarritan, guraso gisa pentsatzen ez ditugunak. Guk argi dugu alde batetik eskola dagoela eta bestetik gu, gurasoak, familia. Baina erdibideko hori ikustea eta bi alderdiak ulertzea oso garrantzitsua da eta horretarako oso lagungarri eta positiboa da Guraso Eskolak ematen dizkizun beste ikuspuntu eta aukera berri horiek. Eskolaren zein familiaren funtzionamendua ulertzen laguntzen dizu, elkarren arteko harremana lantzeko.

Inoiz joan ez diren gurasoak animatuko al zenituzke Guraso Eskolan parte hartzera?

Dudarik gabe. Kontuan izan behar da gurasoen lana ez dela inoiz amaitzen. Guraso garen momentutik beti zerbaite berria ikasten ari gara, eta beti saiatuko gara gure seme-alaben kezka edo arazoei erantzun edo irtenbide bat ematen. Alde horretatik, beti da garrantzitsua beste aukera eta ideia batzuk ezagutu eta ikastea, eta Guraso Eskolak horretan laguntzen du.

Pertsonak gara, inor ez da perfektua. Nik 3 ume ditut eta guraso bezala, sarritan ez dut asmatzen edo hanka sartuko dut, baina hanka sartze horiek ez errepikatzen edo saihesteko irizpide batzuk jasotzea ezinbestekoa da. Guraso Eskolak, tresna eta minimo batzuk ematen dizkizu. Ondoren, noski, tresna horiek probatu egin behar dira, batzuetan balioko dute, besteetan ez, baina gutxienez badugu abiapuntu bat.

Horrez gain, beste gurasoak ezagutzeko aukera ere ematen dizu Guraso Eskolak. Sarritan kezka berdinak izaten ditugu eta beste gurasoekin partekatzea ere oso aberasgarria da.

AXULAR ETA P. ETXEZARRETA BULEBARIZATZEKO PROIEKTUA

“Herritarren irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetuko ditu obrak Axular ibiltokian, Txomin Agirre kalean eta Patxita Etxezarretan”

Gaur egun Axular, Txomin Agirre kalearekin eta Patxita Etxezarreta ibiltokiarekin lotzen dituen eremuak hainbat gabezia ditu. Axularri dagokionez, esaterako, espaloiak oso estuak dira, zaharkituak daude eta gainera, autoak bizi-bizi pasatzen dira oinezkoen aldamenetik. Gainera, bertan dago kokatuta Maria eta Jose ikastetxea; ondorioz, herritar eta haur asko pasatzen dira egunero kale horretatik.

Hori kontuan izanik eta zumaiar ororen eta bereziki haurren segurtasuna bermatze aldera, irisgarritasunari, mugikortasunari eta bereziki herritarren ongizateari erreparatuz, eremu hori urbanizatu eta bulebarizatze kontu saila jaso du Udalak 2017ko aurrekontuetan. Guztira, 93.830,46 € bideratuko ditu aipatutako eremua egokitzera.

Proiektu horren bitartez, Udalak erantzuna ematen dio Plan Estrategikoaren baitan jasotako herritarren eskaerari eta modu berean, oinezkoak lehenetsi eta haien espazioak berreskuratzeko aurrera pausoak ematen jarraitzen du.

“Mugikortasun ohitura osasuntsu eta jasangarriak sustatzea eta uneoro herritarren segurtasuna bermatzea da helburua, ibilgailuaren gainetik oinezkoak lehenetsiz”

Eremu horretan eta bereziki Axular ibiltokian egin nahi diren aldaketek oinezkoen erosotasuna eta segurtasuna areagotuko ditu. Herritarrek leku gehiago izango dute bertatik pasa ahal izateko eta eremua irisgarriagoa izango da, guztien mugikortasuna erraztuz.

Horretarako, besteak beste, espaloiak zabaldu eta errepidea estutuko dira. Horrela, oinezkoek lasai ibili ahal izateko espazioa irabazteaz gain, bertatik pasatzen diren ibilgailuen abiadura murriztea ere lortuko da. Egokitzapen lan horiekin, segurtasun eta mugikortasunean irabazteaz gain, eraginkortasunean eta jasangarritasunean ere irabaziko du eremuak, zaharkituak dauden espaloiak eta gainerako kaleko altzariak ere berrituko baitira.

Halaber, bizikletentzako bidegorri berria eraiki eta dagoenari jarraipena emango zaio, Txomin Agirre, Zuloaga plaza, Erribera eta Axular kaleko bidegorri sarea elkar lotuz. Horrez gain, aparkaleku berriak ere jarriko dira.

Gainera, Udalak eskola bide seguruagoak eraikitze aldera aurrerapauso bat emango du, neurri horiei esker, Maria eta Jose ikastetxeko haurrek espazio zabalagoa izango baitute ikastetxera iristeko. Horrekin, bai haurren artean zein gainerako herritarren artean mugikortasun ohitura osasuntsuak sustatu nahi ditu Udalak, eremu horretan haien segurtasuna hobetu eta bermatzeko,

eta bide batez, Zumaia herri jasangarri bilakatzeko apustuan, ibiltokira edota ikastetxera autoz egiten diren desplazamenduak ere gutxitzeko.

“Axular ibiltokiak espaloia zabalagoak izango ditu eta errepidea estuagoa izango da; ondorioz, oinezkoen segurtasuna bermatu eta ibilgailuen abiadura murriztuko da”



Maria eta Jose ikastetxeko sarrera *Entrada del colegio Maria eta Jose*

El proyecto de reurbanización y bulevarización recoge actuaciones urbanísticas que se llevarán a cabo principalmente en la calle Axular con el objeto de mejorar la seguridad, movilidad y accesibilidad de la ciudadanía y en especial, de los escolares a dicha zona. Para ello, se ensanchará la acera, se estrechará la carretera y también se creará y se dará continuidad al bidegorri. Además, también se implantará una nueva zona de aparcamiento en la misma calle.

Axular ibiltokian, Zuloaga plazatik Maria eta Jose ikastetxera bitarte doan eremuan, espaloien zabalera



bikoiztuko da, 2 metro arte. Halaber, errepidea estutuko da eta kolore beltzeko bidegorria egokituko da bide gainean, ibilgailuen eta bizikleten arteko bizikidetza adierazteko.



Bidegorriaren jarraipena Continuidad del bidegorri

Se duplicará el ancho de la acera que comunica la plaza Zuloaga y la calle Axular, concretamente en el tramo que llega hasta la entrada del Colegio María eta José. Esta pasará a medir 2 metros de ancho. Asimismo, se construirá un nuevo bidegorri con asfalto impreso en color negro sobre el vial de esta misma calle, de manera que los vehículos adviertan la zona de coexistencia.

María eta Jose ikastetxetik aurrera, espaloiak zabalagoak dira, beraz, eta horietan bidegorria jarriko da, oinezkoen eta bizikleten arteko bizikidetza eremu bilakatuz. Era berean, errepidea estuagoa izango denez, bidegorriaren ondoan aparkaleku berriak egingo dira.

Después de pasar el Colegio María eta Jose, la acera se ensancha, por lo que se habilitará un bidegorri de

coexistencia con los peatones, dándole continuidad al que viene de la plaza Zuloaga. Asimismo, al haber estrechado el vial, se ganará espacio y se reordenarán, sobre el mismo, nuevos aparcamientos en batería.

Eremu hau bereziki garrantzitsua da, puntu beltz gisa identifikatu baitzuen Udalak Eskola Bideak proiektuan. Horregatik, herritarren eta bereziki umeen segurtasuna bermatze aldera eta puntu beltz horri irtenbidea emateko, hemen ere espaloiak zabalduko dira. Odieta kaleko sarrera mantendu egingo da baina oinezkoek izango dute beti lehentasuna.

Esta zona es especialmente problemática ya que ha sido identificada, como punto negro o punto de riesgo para los escolares dentro del proyecto "Eskola Bideak". Por tanto, con el objeto de garantizar la seguridad de todos los peatones y dar respuesta al actual problema, también se ensanchará la acera y a pesar de que se mantendrá el acceso a la calle Odieta, los peatones tendrán siempre preferencia sobre los vehículos.



Txomin Agirre eta Erribera kalea Txomin Agirre y calle Erribera



ELKARLANEAN SINESTEN DUGU

Herritar zein oposizioaren iritzi eta ekarpenak jasotzea aberasgarria da eta horretarako borondatea izaten jarraituko dugu beti

Legealdi hasieratik elkarlana izan da, uneoro, EAJ-PNVren udal gobernuaren lan eredua. Gure asmoa eta nahia izan da beti proiektu eta egitasmo guztiak herritarrekin partekatu eta haien iritzi, proposamen eta ekarpenak jasotzea. Eta herritarrekin bezala, gauza bera oposizioarekin ere.

Elkarlanean zinez sinesten dugu, bai. Izan ere, guztion arteko

hartu-emanak bermatuko du gure herriaren garapena. Eta zer hobe, Zumaia eraikitzen jarraitzeko ibilbidean guztiok bat egitea baino? Ibilbide bera lantzea baino, alegia? Bidaia luzea da, baita lan handikoa ere, baina prozesu horretan iritzi eta ideia aniztasuna izango dira guztion arteko elkarlanak emango digun altxorrik aberasgarriena.

Zumaia eta zumaiarrei begira egin behar dugu lan, eta guztion ongizatea eta bizi kalitatea hobetuko dituzten egitasmo eta proiektuak sustatzea da, ildo horretan, Udalaren eginkizun eta betebeharra.

Azken denboraldian, ordea, oposizioaren jarrerak herritarren nahasmena sortu duela salatu nahi du EAJ-PNVren udal gobernuak. Udal talde bakoitzak bere lan ildo eta proiektuak landu behar ditu, noski, baina



ITXURA

Herritarren parte-hartzea eta herritarrei hitza ematea ez da itxura egiteko kontua. Bada edo ez da. Ezin da itxurarik egin

Itxura: adiera edo esanahi asko dituen hitza.

Adibidez, elkarrizketa honetan:

- Itxura da ardura handia dutenek arduraz eta zintzo jokatzeko.
- Ez, itxura. Ardura handia dutenen artean badira itxura egiten ibiltzen direnak.
- Itxura txarra ematen dute azkenean horiek, bai. Itxurakeria

gezurra bezalakoa baita askotan: hanka motzekoa.

Itxura orijinalaren kopia txarra bihurtzen da beti. Nork bere ezaugarriei uko egin eta bestearena egiten hasten bada, itxura txarra hartzen du, ez duelako berezko jarrera. Baina batzuek berezko jarrera hori ezkutatu beharra daukate, itxuroso azalduko badira, eta horretarako itxurakerietan ibili behar. Dena den, ezin da beti itxura egiten ibili, eta batzuetan, itxura egiten ari direla nabarmen antzematen zaie. Orijinala azaltzen da kopia txarraren gainetik.

Jendarteak ez du itxurakeriarik nahi aparkalekuen gaian. Herriak itxura ona izatea eta ematea nahi du gai honetan ere. Ez baita itxura autoa aparkatzeko mila buelta eman behar izatea. Konponbide bat erakutsi diote: orijinala (berria). Ez dio itxura onik hartu, ez zaio itxurazkoa iruditutako herriarrek bereiztea herria bitan banatuz. Berehala



APROBACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS Y ECUADOR DE LA LEGISLATURA

Aurrekontuen onarpena eta legealdiaren ekuadorea

puesto que en ellos se recogen las demandas que teníamos y que entendemos son importantes, para el bienestar de los zumaiarros.

Entendemos que son unos presupuestos con un marcado carácter social destacando el incremento importante en las partidas de acción social, la importancia que se da también en los mismos a las fórmulas que se generan para la creación de empleo y también las medidas para facilitar la emancipación de las personas jóvenes del municipio; cuestiones que siempre defendemos los socialistas.

Nos encontramos prácticamente iniciando el mes de marzo de este año 2017, en este periodo desde el último artículo han sucedido cosas importantes en la vida municipal, la principal no cabe duda ha sido la aprobación de los presupuestos del Ayuntamiento para este año.

Los socialistas hemos votado a favor de los mismos,

Aurreko Udal Aldizkarirako idatzitako artikulutik gauza garrantzitsuak gertatu dira, nabarmenena, noski, aurrekontuen onarpena. Sozialistok alde bozkatu genuen, zumaiarren ongizaterako garrantzitsuak zirelakoan egin

EAJ-PNVren iritziz ez da inondik-inora onargarria proposamen horiek behar bezala landu gabe zabalitzea, are gutxiago legea betetzen ez dutenean. Guzti horrek herritarrek nahastu besterik ez dituela egiten uste dugu.

Honenbestez, guztion jomuga berdina denean, ez ote da aberasgarriagoa, proposamen, egitasmo, ideia eta iritzi guztiak proiektu bateratu bat garatzera bideratzea?

Hori aintzat hartuta, dei egiten diogu oposizioari, alderdikeriak albo batera utzi eta elkarlanean, proiektu bateratu hori garatzeko, Etorkizuneko Zumaia eraikitze bidean gurekin bat egiteko, alegia. Beti egongo dira iritzi eta ikuspuntu ezberdinak, horrek horrela behar du izan, baina ezin dugu ahaztu, guztiok gauza berarengatik borrokatzen dugula: Zumaia eta zumaierren ongizatea,

hain zuzen. Eta, noski, hori lortze aldera guztiok batera lan egin behar dugu.

Desde EAJ-PNV creemos y apostamos por la cooperación y el trabajo en equipo. ya que consideramos que esa colaboración es la clave para el desarrollo de nuestro municipio. La diversidad de opinión es un hecho y algo necesario para llevar a cabo nuestra labor pero si todos compartimos un mismo objetivo, como lo es el desarrollo de Zumaia y el bienestar de sus habitantes, ¿por qué trabajar en bandos separados? ¿Por qué no unir nuestros esfuerzos a crear un proyecto común que nos ayude en la consecución de nuestro principal objetivo? No olvidemos que al final del día, todos peleamos por lo mismo: Zumaia y las y los zumaieras.

erakutsi diote beste batzuek beste aukera bat: orijinala hau ere (berria). Itxurarik egin gabe, orijinala aldatzeko aukera eman diote, gainera. Herritar itxuroso eta itxurazko sentiarazi dute bigarrenago hauek.

Orain, bi orijinal daude mahai gainean, eta ardura handia daukaten agintari horiek ez lukete itxurarik egiten jarraitu behar. Ez da itxura horrela ibiltzea. Itxurazkoa litzateke itxurarik ez egitea. Orijinalak izatea dagokie, orijinalaren kopia txarra bihurtuta itxura egiten ibili beharrean. Parte-hartzearena ez baita itxura egiteko kontua. Oso serioa da. Orijinala bakarrik onartzen du: bada edo ez da. Ezin da itxurarik egin.

Ez ote da ere itxurakeria izango berriki abiatu den negoziatzeko bidearena ere? Itxura egiten segitzeko beste pauso bat? Espero dugu ezetz, ez litzateke itxurosoa izango.

Ardura handiz heldu diogu EH Bildun gai honi ere, eta bide beretik segituko dugu aurrerantzean ere. Ez gara itxurak egiten ibili, ezta ibiliko ere. Ez da itxura herritarren aurrean jarrera hori azaltzea. Hitza eman genien, hitza hartu dute, eta hitza beteko diegu. Itxuraz eta itxuroso. Benetako demokraziaren eta parte-hartzearen itxura hori delako. Ez itxurakeria.

En el tema de regular los aparcamientos, EH Bildu ha actuado con total transparencia, dando la palabra a los ciudadanos y elaborando su plan con las aportaciones de los zumaieras. Creemos que son los que tienen que decidir en este tema. Por ello, al haber dos propuestas encima de la mesa (una del PNV, y la otra de EH Bildu), tienen que ser los zumaieras los que elijan. Porque creemos firmemente en una verdadera participación ciudadana, sin ambigüedades.

genituen proposamenak jasotzen zirelako.

Izaera soziala duten aurrekontuak dira, gizarte ekintzarako kontu sailetan igoera nabarmenak dituzte, enplegua sortzeko formulei eta gazteen emantzipazioa errazteko neurriei ere garrantzia eman zaie, sozialistok beti defendatzen ditugun neurriak hain zuzen ere.

Aurrekontu jasangarriak dira, hiri mantenurako eta zenbait auzoetako irisgarritasuna hobetzeko kontu sail garrantzitsuak jasotzeaz gain, lehen aldiz, industri ondarearen zaintza, guk gogor defendatu duguna, ere jasotzen duten aurrekontuak.

Son unos presupuestos sostenibles en los que se recogen importantes partidas para el mantenimiento urbano de Zumaia, mejora de la accesibilidad a determinadas

zonas como el barrio de San José, y en los que por primera vez se recoge también la figura del cuidado del patrimonio industrial que como sabéis si nos habéis seguido hemos defendido con ahínco.

Este año va a ser importante porque en junio llegaremos al ecuador de la legislatura y será importante para comenzar a evaluar el cumplimiento de los compromisos adquiridos. En este sentido como hacemos siempre os animamos a hacernos llegar vuestras peticiones y sugerencias o simplemente a que nos pidáis cuenta del trabajo que realizamos. Podéis hacerlo a través del teléfono 943 455655 o del email arritxu-maranon@socialistasguipuzcoanos.com

Agur bero bat



UDAL WHATSAPPA ZURE ZERBITZURA!

Tel. 688 844 400

Zure auzoko parkean lurra egoera txarrean dago? Aldatu egin behar da?
Haur jolasak apurtuta daude?


Idatzi udal Whatsapp zenbakira!

Bidali zure ideia eta proposamenak 688 844 400 zenbakira, 24 orduz jasoko ditugu zuen ekarpenak.

Eta gainera, asteazkenero, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara zuzenean erantzungo ditugu zuen galderak.

Envía tus ideas y propuestas al 688 844 400, las recibiremos las 24 horas del día.

Ahora, además, podremos responder tus preguntas en directo los miércoles de 16:00 a 18:00.



UDALA SAREAN



FACEBOOK
ZUMAIKO UDALA



TWITTER
ZUMAIKO UDALA



YOUTUBE
ZUMAIKO UDALA



WEB
ZUMAIA.EUS